



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-04-25

VI. URTEA 1.417. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iñaki Gorostidi, Adunako Uztartzan dagoen 208 kiloko harriarekin. I. GARCIA

NafaRock 2008 antolatu dute «gazte borroka aldarrikatzeko»

LEITZA Bihar egingen dute jaialdia: 19:30ean manifestazioarekin emanen diote hasiera eta gauean kontzertuak izanen dira kiroldegian 7

Dantza garaikidea ikusgai, gaur, Gurea aretoan

VILLABONA 'Astra tour' lana aurkeztuko du Jon Munduatek eta bere taldeak, 22:30ean 5

IRIGOIEN ETA OSTOLAZA NOR BAINO NOR 208 KILOKOAREKIN

ADUNA Etzi izango da II. Gorostidi Harria Txapelketa, 18:00etan frontoian; 280 kiloko harri zilindro zaharra altxa beharko dute 4

Traktorearekin lanean ari zela 62 urteko gizonezko bat hil da

LEABURU-TXARAMA Maldan behera erori eta traktoreak azpian harrapatu du 5

'Antigona' antzezlanak ikusgai izango da bihar Leidor aretoan

TOLOSA Antzerki klasikoko testu onenatarikoa da; 20:30ean izango da 3

txokoa **h**

2 sarrera pare

zozketan
deitu eta eskuratu

Apirilak 28 ° astelehena
16:30ean
Tolosako
Beotibar pilotalekuan



aspepelota.com

Berasaluze IX - Apeztegia Ongay - Arizmendi

CAPELLAN - PASCUAL
GONZALEZ - NALDA III

Del Rey - Urberuaga
Olazabal - Arruti

Kirol jarduera

Bihar

Pilota

■ Beotibar pilotalekuan Gravn torneoko partidak jokatu dira 16:30etik aurrera.

Saskibaloia

■ Eskolapioetan 1. go mailan jokatzen duten Take-koek Berriotxoa izango dute aurkari 18:00etan.

■ 10:30ean jokatu da, Usabal kiroldegiko beheko kantxan, infan-tilen mailako Take A eta Easo Elur-rraren arteko partida.

■ 12:00etatik aurrera jokatu dira, Usabal kiroldegiko beheko kantxan, kadeteen mailako bi partida. Lehen Take eta BKLen arteko izango da. Hurrengo, Take Tovar eta Internacional Bren arteko.

■ 12:10:30ean jokatu da, Usabal kiroldegiko beheko kantxan, infan-tilen mailako Take A eta Easo Elur-rraren arteko partida.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil txikien mailan, Tolosa CFkoen eta Sporting Herrerakoen arteko partida jokatu da 10:00etan.

■ Ohorezko kadeteen mailan, Tolosa CF eta Alona Mendi izango dira aurrez aurre 12:00etan, Usabalgo futbol zelaian.

■ Lurraldeko bigarren mailan, Amaro eta Dumboaren arteko jokatu da 15:30ean, Usabalgo futbol zelaian.

■ Tolosa CFko emakumezkoen taldeak Zarautz izango du aurkari, 15:30ean.

■ Usabalgo futbol zelaian, jubenilen lehen mailako mailan, Amaro eta Luberrikoaren arteko partida jokatu da 17:30ean.

Aretoa futbolak

■ Ibarran, 18:00etan, lehen mailako mailan jokatu dute Laskorain eta Anclaren arteko partida izango da.

Ezti

Zesta-punta

■ 10:00etan hasita, Beotibar frontoian Herri Arteko Zesta Punta txapelketako partidak jokatu dira.



Leidorren ikusi ahalko den 'Antigona' antzezlaneko une bat. HITZA

'Antigona' lana ikusgai izango da bihar Leidorren

Kultura » Vaiven ekoiztetxearen antzezlan 20:30ean eskaniko dute; antzerki klasikoaren testu onenetako bat da hau.

ERREDAKZIOA

Vaiven ekoiztetxearen eskutik, *Antigona* antzezlan izango da ikusgai bihar, 20:30ean, Leidor antzerki zelaian. Sarrerak Servikutxa, Te- lekutxa eta www.kutxa.net-en eskura daitezke. Dena den, emanaldia hasi baino lehen Leidorreko lehiatilan ere erosi ahal izango dira sarrerak.

Antigona antzerki klasikoaren testu onenetako bat bezala ezagutzen da. Askatasunaren tragedia handienetako bat da, familia eta berezko eskubideak agintekeriaren aurrez aurre jartzen direlarik. Ezta- baida politikoa, sozial eta etikoa ugari

aurkezten dira antzezlanean. Gai- nera, auzi hauek egun ere pil- pile- an daude jendartean.

Sofoclesen tragediak konfor- mismoan erortzeko borondatea berritzeko bakarrik ez du balio, baita ere, erakusteko, batzuetan injustizien aurrean altxatzeko gai dela jendea.

«Deabruak gehiago daki zaha- rra izateagatik, deabru izateagatik baino». Sofocles da esaldi honen erakustaila nagusia. Hala, esaldi honek arrazoia izaten jarraituko du ziurrenik, gizakia bizi den arte- an. Izan ere, nahiz eta garaia alda- tu, akats berak errepikatzen dira jendea agintera heltzen denean. Hala ere, esan beharra dago, jen- deak aurrera egiten duela eta gara- tuz joaten dela. Horren adibide dira, besteak beste, eguneroko komu- nikabideetan ageri diren teknolo- gia berrikuntzen inguruko albiste- ak.

«Aberasgarria izan da maila horretako abesbatzekin aritzea»

ENRIQUE AZURZA » Hodeiertz abesbatzako zuzendaria

Kultura » Esloveniako Maribor herrian ospatu den abesbatza lehiaketan izan dira eta seigarren postuan sailkatu dira.

ESTI EZEIZA

Hodeiertz abesbatza Esloveniako Maribor herrian izan da Europako Sari Nagusiaren baitan aurten sartu den lehiaketan parte hartzen. Tolosako abesbatza seigarren postuan geratu da. Egindako lanaren inguruan mintzatu da Enrique Azurza, bertako zuzendaria.

Gustura al zaude lortutako emaitzarekin?

Bai, oso gustura. Ez ginen finalerako sailkatu, eta pena izan zen, baina beno. Larunbat goizeko saioan ongi abestu genuen, baina arratsaldekoan urduri geunden, eta ez zen ongi irten.

Gutxiagatik ez zineten sailkatu finalerako.

84,8 puntu lortu genituen, eta gure aurretik geratu zenak, Codettak 86,6. Beraz, diferentzia txikia zen eta nahiko puntuazio ona jaso genuen. Gainera, gainontzeko abesbatzen maila oso altua zen. Finalerako sailkatu ez baginen ere, oso pozik gaude egin genuen lanarekin.

Merezitako postua izan al zene seigarren hori?

Larunbat goizean ongi aritu ginen, baina arratsaldean afinazioan- eta akats batzuk egin genituen. Finalerako sartzeko gure helburua, baina lortu izan bagenu ere, lau edo bosgarren postuan geratuko gine- la uste dut. Beraz, gauzak ez ziren gehiagi aldatuko igandekoan aile- gatu izan bagina ere. Bestalde,



HARRIET BELLOSO

epaimahaiko kideekin ere egon nintzen hitz egiten eta zorionak eman zizkidaten egindako lanagatik.

Zer ikasi duzue esperientzia honetatik?

Prestakuntza bera oso garrantzi- tsua izan da guretzat. Egitarau zaila eramanez gure lehiaketara. Honez gain, oso aberasgarria izan da maila horretako abesbatzekin lehiatzea. Abesbatzako aurrera egin duela esango nuke.

Txapelketako zein unerekin geratuko zinateke? Zein izan zen zuen emandiririk onena?

Lehen aipatu bezala, larunbat goizeko saioarekin geratuko nintza- tzeke. Hiru pieza jo genituen orduan, esloveniako bat, errenazi- menduko bat eta erromantiko bat. Esaterako, azken hori oso ongi ir- ten zitzaigun.

Orain, abesbatzaren 25. urteurrenarekin ospakizunekin jarraituko duzue?

Bai, hasteko bihar Logroñen (Es- painia) izango gara Esloveniako egitarau bera aurkezten.

Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

II. urteurrena
**JOSETXO URDANPILLETA
GOENAGA**

Mendi magalean ikusten zaitugu amesten zenuen askatasunean

Etxekoak



IBARRAN
2008ko apirilaren
25ean

Hilberria
**JOXE ANTONIO OTEGI
LOPETEGI**



Andoni Otegi, euskal preso politikoaaren aita



Tolosaldeko Amnistia-aren
Aldeko Mugimendua eta Etxerak

LEABURUN
2008ko apirilaren
25ean

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Irigoien eta Ostolaza lehiatuko dira II. Goristidi Harria Txapelketan

Aduna » Aurten 208 kiloko harri zaharrarekin ariko dira lehian; etzi izango da Txapelketa, 18:00etan, Adunako frontoian.

IMANOL GARCIA

Iazko arrakasta ikusirik, aurten ere Adunako Muxkil kultur elkarteak Gorostidi Harriaren II. Txapelketa antolatu du. Etzi izango da lehiaketa, 18:00etan, herriko frontoian eta Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza ariko dira lehian. Sarrera doan izango da eta nahi duenak borondatea emateko aukera izango du.

Iazkoan, Iñaki Gorostidi adunarrak esku batez 185 kiloko harri zilindro zaharrarekin egindako markagorazat antolatu zen txapelketa. Kontuan hartu behar da orduan Gorostidik 77 kilo pisatzen zituela. Iaz betetzen ziren 25 urte altxaldi hori egin zuela adunarrak. Jaialdi hartan, bi eskurekin 208 kiloko harri zilindro zaharra altxatu zuen ere. Eta harri horrekin ariko dira etzi Irigoien eta Ostolaza. Iaz-



Iñaki Gorostidi, Uztartzan dagoen 208 kiloko harriarekin. I. GARCIA

koan Irigoienek berak irabazi zuen txapelketa eta etzikoan bera da ere faborito nagusia.

Bost minutuko txandan jasoaldi gehienak egiten dituenak irabaziko du Txapelketa. Berdinketarik balego, jasoaldi bat azkarren egiten duenak irabaziko du. Lehenengoak 600 euro jasoko ditu eta bigarrenak 500 euro. Iaz bezala, 100 kilo azpitik pisatzen duen harri-jasotzailearen batek harriari altxaldi bat ematen badio 500 euroko saria jasoko du. Jaialdian zehar beste lehiaketa bat ere egingo da, kasu honetan ikusleei zuzenduta. 75 kiloko bi txingarekin izango da lehiaketa.

Harri zaharren zailtasuna

Orain 26 urteko jaialdi hartan, hiru aldiz jaso zuen Gorostidik 208 kiloko harria bost minutuko txandan. «Nire helburua egun hartan 185 kiloko esku bakarrarekin altxatzea zen. Bi eskuekin beste harria altxatzearen kontua erakustaldia pixkat gehiago luzatzeagatik izan zen», dio. Gero esku bakarrarekin egin behar zuen saiakerara «pixkat nekatuta» joan zen, baina bi aldiz igo zuen 185 kiloko harria.

Gorostidik azaltzen duenez, txapelketa erabili beharrekoa harri zaharra izateak bere arazoak ditu. «Garai bateko harri zaharrak zailtasun handia du jasotzeko. Orduan ere bai eta orain bai. Harria bera eustea zailagoa baita».

Hain justu, txapelketa hauek antolatzearen arrazoia horixe da: «Ikusi dezala jendeak garai batean zer harri jasotzen diren, gaur egun jasotzen direnekin konparatze-

208 kiloko harri zaharra Uztartzan dago ikusgai; harri-jasotzaileek ezingo dute aurretik probatu

ko», azaltzen du Gorostidik. «Ez oraingokoei merituak kendu eta lehengoko harri-jasotzaileek meritua emateko, baizik ikusteko harri zaharrek zuten zailtasuna».

208 kilo harri zaharra Adunako Uztartza tabernan dago ikusgai. Harri-jasotzaileek ezin izango dute aurretik probatu eta beraz etziko txapelketa izango dute aurrez aurre lehenengo aldiz.

Jaialdia borobiltzeko, Jose Mari Mendizabal, Mendizabal II.a, herriko aizkolari veteranoak, zutikako kanako enborra moztuko du. Aipatzekoa da, egun 61 ute dituela Mendizabal II.ak eta moztu behar duen enborrak bi metro eta erdi-ko zirkunferentzia duela.

bigarrenko txapelketa honen baitan enborra mozteko.

Zer moduz doaz prestaketak?

Astean behin aurretik aritzen nintzen aizkoran. Udan gehiago, erakustaldi batzuk eta egiten ditudalako lehengoko aizkolarien artean. Azkeneko hilabetea nahiko serio hartu dut eta jarri naiz. Ez dut egingo miraririk, dudan adinarekin, baina uste dut poliki moztuko dudala.

Enbor puska ederra da moztu beharrekoa. Zergatik zutik?

Kapritxo horixe neukan. Gainera, prestatzen hasi naizenez, eta gortzetatik kilo gehiago kenduz gero, udazkenean horrelako enbor bat zutik eta beste bat etzanda moztea pentsatzen ari naiz.

Horrelako, zutik, moztu ahal duzu aurretik?

Bai, bai. Igandean moztuko dudana 108 ontzakoa da eta Olsagastirekin jokaturako apustu batean, 110 ontzako bi zutik eta bi etzanda moztu genituen. Orduan, nahiz bost zentimetro gehiago izan, nahiko denbora ona egin nuela pentsatzen dut, 15'18". Orain dela 19 urte izan zen hori, baina orain, noski, denbora horiek ahaztu beharra dago. Baina, esan bezala, nik uste dut, dudan adinarekin, lan polit bat egingo dudala.

Jaioterrian horrelako proba egiteak zer suposatzen du zuretzat?

Ilusio handia egiten dit. Lehen aritzen ginen amabirjinetan, baina aspaldi ez naiz Adunan aritu. Esan bezala, aurrerago ere berri egin nahi dut horrelako saikera bat eta ea Adunan egitea posible den.

«Dudan adinarekin ez dut egingo miraririk, baina uste dut poliki ariko naizela igandean»

JOSE MARI MENDIZABAL » Aizkolaria

I. GARCIA

Jose Mari Mendizabal (Aduna, 1947) Urdiainen (Nafarroa) bizi da egun eta ogibidez garraiolaria da. Mendizabal II.a bezala hainbat urtetan aritu da aizkolaritzaren puntan eta egun erakustaldiak egiten ditu. Kanako enborra zutikakoan moztuko du etzi jaioterrian.

Nola sortu zen saioa egitearena?

Gorostidi Harriaren Txapelketa ikusten egon nintzen aurreko urtean eta egun hartan Iñaki Gorostidirekin hitz egin nuen eta zerbait egiteko asmoarekin nengoela komentatu nion, zutik jarritako enbor bat mozteko edo. Orain hilabete pasatxo esan zidan Gorostidik



Mendizabal II.a, apustu bat egiten Tolosako zezen-plazan, 1981ean. HITZA

1. NAÑARRI RALLY ESPRINTA
ALEGIA - ORENDAIN - ABALTZISKETA - AMEZKETA

2008ko APIRILAREN 26AN

EGIAZTAPENAK:
10:00ETATIK
12:00ETARA

LEKUA:
ALEGIAKO HERRI ESKOLAN

IRTEERA:
15:00ETAN, ALEGIATIK

ERREPIDEA

MOZTEA:
14:00ETAN

SARI BANAKETA:
AMEZKETAKO PLAZAN

PRIMEREN PARRASATU GABE

Laburrak

Ezker abertzalearen batzarra, bihar, udaletxean

ANOETA • Anoetako ezker abertzaleak batzarra egingo du bihar, 11:00etan, udaletxean. Bertan ondorengo gaiak jorratuko dituzte: azken hilaletako balantzea, egungo egoera politikoa eta aurrerabegirako ildoak. Deia luzatzen diete ezker abertzaleko kide guztiari bertan parte hartzeko.

San Estebanera irteera antolatu dute etzirako

VILLABONA • Hutsunea betez emakumeen elkarteak mendi irteera antolatu du etzirako. 10:00etan aterako dira kiroldegitik oinez, eta Andoaingo San Esteban mendira joango dira. Familiartean joateko moduko irteera izango da, eta bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du.

Traktorearekin lanean ari zela gizonetako bat hil da

LEABURU-TXARAMA • Traktorearekin istripua izanda hil zen atzo goizean Leaburuko bizilagun bat. Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak agertu duenez, 09:15 inguruan gertatu zen ezbeharrak: 62 urteko gizonetako traktorean zihola malda batean behera erori zen, eta traktoreak azpian hartu zuen. Medikuek heriotza baieztatu besterik ezin izan zuten egin. Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak jakotakoa «ezin dela lan istripuztat hartu» agertu du, «erretirata zegoen eta».

Fraisoroko ikasleak Zientziaren Azokan

ZIZURKIL • IMK Fraisoroko ikasle talde batek Zientziaren III. Azokan, Donostian, hartuko du parte gaur eta bihar. Hainbat proiektu aurkeztuko dituzte irakasleen laguntzarekin. Lore diseinuarekin, kontrol biologikoarekin zein *trepas* teknikarekin erlazionaturiko proiektuak azalduko dituzte.

Belateko sarrera itxiko dute garabia ateratzeko

TOLOSA • Rondilla kalearen luzapena eremuko lur azpiko aparkalekuak eraikitzeak obren azken fasea dela eta, lan horietan aritu den garabi dorrea kendu beharra dago, eta horregatik ezinbestekoa dela Belate pasealekuko sarreran bidea ixtea ibilgailurik ez pasatzeko adierazi du Udaltzaingoa. Bidea itxita egongo da gaur 21:00etatik etzi, igandea, 23:00ak arte.

Kubako egungo egoera hizpide, Apirila Gorrian

TOLOSA • Apirila Gorriaren baitan, Kubako egoerari buruzko hitzaldia emango du gaur, Euskadi-Kuba elkartasun plataformako Lazaro Oramas kubatarrek, Sanblaspioko Gazte lokalean, 18:00etan.

Dantza garaikidea ikusgai, gaur, Gurea aretoan

Villabona • 'Astra tour' lana aurkeztuko du Jon Munduatek eta bere dantza taldeak; sarrera 7 euro ordaindu beharko da.

ERREDAKZIOA

Dantza garaikideaz gozatzeko aukera izango da gaur, Gurea aretoan, 22:30etik aurrera. Hain zuzen ere, *Astra tour* ikuskizuna aurkeztuko du Jon Munduatek eta bere dantza taldeak. Ordubetik inguruko emanaldia ikusteko 7 euro (5 euro gazte txartelarekin) ordaindu beharko dira.

Dantzan eta ikusizko arteetan prestatutako artista da Jon Munduate. Ondorengo pieza hauek sortu ditu: *Lucia con zeta* (1998),

Boj de largo (2000), *Flyball* (2000) eta *Astra tour* (2003-2004). 1998. urtetik Mugatxoan proiektua zuzentzen du Blanca Calvorenkin batera. Bere dantza leku batetik bestera joateko ekintza gisa, igarotze gisa (piezaren hasieratik amaiera), definitzen du. «Hori gertatzen den lekua eta denbora da», azaltzen du.

Iberiar Penintsulan zehar autoz eginiko bidaia da, izenaren arabera aukeraturiko herrietan barrena. *Astra tour* lana bi piezek osatzen dute: bideo-instalazioa eta performancea. Bi pantailen gaineko proiektzio sinkrono eta jarraituak osatzen du bideo-instalazioa. Eszenan gorputza eta haren jarduerak dira gertatzen den guztiaren lotura, eta herrien izenek baino ez dituzte ematen ibilbidearen berri.



'La sed' antzezlanean aktoreak Tolosako antzerki tailerlean. JERONIMO OTEGI

Hirugarren kanporaketa gaur, Asvineneako taulan

Aduna • Tic Tac eskualdeko taldea ariko da 'La sed' izeneko lanarekin; 22:30ean hasiko dira taldeak antzeztan.

ERREDAKZIOA

Asvineneak antolatutako Bigarren Poltsikoko Antzerki lehiaketaren laugarren sailkapena izango da joan gaur.

22:30ean hasiko dira taula gainean antzeztuko duten taldeen saioak. 8 eta 15 minutu arteko saioak izango dira eta taldeei eta lanei dagokionez, ondorengoak izango dira: Les 3 Chemins taldea *Le Retour de France* lanarekin, Tic Tac taldea *La sed* lanarekin, Escapada

en solitario taldea *En la aire* lanarekin, La Tirili Teatro taldea *Stop al panico* lanarekin eta Urzum taldea *La protesta* lanarekin. Hauetatik, Tic Tac taldea da eskualdeko, Tolosako Kultur Etxeko antzerki tailerreko, hain zuzen. Euren lana, *La sed* izeneko bakardadea islatzeko bakarrizketa da, baina bi aktorek hartzen dute parte.

Gaurko gaua borobiltzeko Red Edveil donostiar musika taldeak euren doinuak eskainiko ditu.

'Autoeskuela' eta 'Irri makila'

Hirugarren sailkapenean, pasaden astean, Autoeskuela taldeak jaso zuen epaimahiaren bozka. Bestalde, Irri makila taldeak «euren umorearengatik» ikusleen boztoa eman zuen.



Pasa den urteko Gipuzkoa Encounter jaialdiko une bat. I.

Ordenagailuek hartuko dute asteburuan herria

Tolosa • Usabalen Gipuzkoa Encounter jaialdia egongo da, eta Trianguloan eta Kultur Etxean Internet Eskola.

ERREDAKZIOA

Ordenagailu eta informatika zaleen gunen bilakatuko da Tolosa gaurtik igandera bitarte. Batetik Gipuzkoa Encounter jaialdia izango da Usabalen, eta bestetik, Internet Eskola jarriko dute Triangulo plazan eta Kultur Etxean.

Bigarren urtez antolatu du Gipuzkoa Encounter Tolosako Udalak Euskaltel, Euskalmiga, Foru Aldundia, SPRI eta Kutxaren laguntzarekin. Gipuzkoako informatika zaleen jaialdirik handiena da eta helburua «informatikaren inguruko ideiak, esperientzia eta jarduerak trukatzeko foroa sortu eta informazioaren gizarteari bultzada ematea» da.

Azken teknologia eskura

600 lagun inguruk hartuko dute parte, horietatik %92a gizonetakoak. %44a gipuzkoarrak dira, eta gainontzekoak Euskal Herriko nahiz Espainiako leku desberdinetatik datoz. Parte-hartzaileen batez besteko adina 26 urtekoa da. Erabiltzaile hauek baliabide tekniko eta euskarri onenak izango dituzte euren eskura; esaterako, Euskaltelen arduradunen esanetan, «Europar 100 gigabyte errearen sarea eskainiko duen lehen jaialdia izango da».

Erabiltzaileek, beraz, azken teknologia izango dute eskura, baina horretaz gain, guztietantz zabalik egongo diren hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte. Batetik, alde profesionalari zuzendutako lehiaketak, foroak eta hitzaldiak egongo dira. Esaterako, musika elektronikoa, bi eta hiru dimentsiotako animazioa, ordenagailu bidezko animazioa edo hardware lehiaketak izango dira.

Atal ludikoari dagokionez, sarean burutuko diren jokoak egongo dira, eta parte-hartzaileek taldeka jokatu dute batzuk besteen aurka. *Gamegune*-rako klasifikatzaerako balio duen amateur jokoan lehiaketa ofiziala dauka Gipuzkoa Encounter-ek.

Etenik gabeko aisia hasiko da beraz, gaur Gipuzkoa Encounterren erabiltzaile nahiz bertara, Usabalerak, gerturatzen direnentzat.

Internet ezagutarazteko

Gipuzkoa Encounter ordenagailuen munduan oso sartuta dauden pertsonen zuzenduriko jaialdia da, eta mundu hori ongi ezagutzen ez dutenentzat Internet Eskola antolatu du SPRIk, KZguneak, Euskaltel eta Udalak. Triangulo plazan jarri duten karpan eta Kultur Etxean egongo da gune hau. Helburua, «ordenagailua erabiltzera eta Interneten nabigatzera ohitura ez dauden pertsonen teknologia berriak ezagutaraztea da».

Horretarako, 70 ordenagailu jarriko dituzte, eta postuetan laguntzeko begirale-prestatzaile elebidunak egongo dira. Bi eremu egongo dira. Bata, Trianguloan, eta *Wii Tennis*, *Guitar Hero*, *Dance dance revolution* eta *Eye Toy Anti-grave* bezalako jokoak eta informazio-gunea egongo da. Jokoetako sariak bihar banatuko Alex Ubago abeslariak 12:30ean, Trianguloko karpan.

Beste eremua Kultur Etxean egongo da. Beheko solairuan 70 ordenagailu egongo dira nabigatzeko haur eta gazteei eta hirugarren adinekoi zuzendutako. Lehenengo solairuan Prestakuntza-gela egongo da, eta hainbat gai interesgarri azalduko dituzte begiraleek.

Guztia doan izango da ordutegi honetan: gaur, 09:30etik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara; bihar, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:00etara, eta etzi, berri, 10:00etatik 14:00etara.

LABek «aldarrikapen eta borroka egunean» parte hartzeko deia egin du

Ekonomia »

Astelehenerako, Lan Osasunaren Egunerako, LABek lanuzte eta elkarretaratzeetara deitu du.

ASIER IMAZ

Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna da apirilaren 28a, astelehena. LABek «aldarrikapen eta borroka egun» bilakatzeko asmoarekin mobilizazioetara deitu du eskualdeko lantegi guztietan. 12:00etatik 13:00etara lanuzteak eta elkarretaratzeak egiteko deialdia egin du. Ezker abertzaleak ekimenarekin bat eginaz 20:00etan Tolosako Triangulon eskualdeko elkarretaratzea egingo du.

Amenabar enpresa hizpide

Apirilaren 28a lan segurtasun eta osasunaren defentsan egun erreferentea dela aipatu zuen LABeko Mari Mujikak, nahiz eta «langileok eskubide hau urratua dugun. Inposatzen zaigun eredu neoliberal honetan, langileen beharrak irabazi ekonomien atzetik bigarren mailan geratu dira».



LABeko ordezkariak eta delegatuak prentsaurrekoa eskaini zuten Lan Osasunaren Eguneraren inguruan. ASIER IMAZ

LABen ordezkariaren esanetan, lan harremanetan prekaritatea eta prebentzio eza dira nagusi. Hauen ondorioak berriz lan istripuak dira. Aipatu behar da enpresa batzuk duten ez-behar-kopuru altua; Tolosaldeko bi hildako Amenabar enpresako langileak zirela nabarmendu nahi genuke».

dira lan istripuan hil diren langileak. Tolosaldea-Goierri azken urtean lau pertsona hil dira. Aipatu behar da enpresa batzuk duten ez-behar-kopuru altua; Tolosaldeko bi hildako Amenabar enpresako langileak zirela nabarmendu nahi genuke».

Lan istripuen zergatiak

Lehen aipatu bezala, LABek prekaritatea eta prebentzio eza aipatu zituen arrazoi nagusi bezala.

Prebentzioari dagokionez, Oihana Lopetegik hitz egin zuen LABen izenean, indarrean dagoen Laneko Arriskuen Prebentzio Le-

geak eraginkortasunik ez duela azaltzeko; «1996ean indarrean sartu zenetik lan istripu ari bat gertatzen da 8 minuturo, 12 orduro lan istripu larri bat eta bi egunez behin langile bat hiltzen da lan istripu baten ondorioz. Honek agerian uzten du aipatu legearen eraginkortasun eza eta administrazioen ez-gaitasuna edota gogo falta arazo hau konpontzerako orduan».

Prekaritatearen inguruan «Osala eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren datuen arabera», Lopetegik lan istripuek eta prekaritateak lotura zuzena zutela aipatu zuen.

Moziok lantegietan

LABek jakitera eman zuenez, «egoera honen aurrean» lantegi guztietan moziok aurkeztuko ditu. Huetan besteak beste, «patronalak legeak bete ditzala» exjitu dute, «horixe baita gure osasun galeren arrazoi eta eragileetako bat». Horrekin batera, «mutuen lan zikina behingoz bukatu dadila» eskatuko dio patronalari LABek lantegietan aurkeztuko dituen moziok. Mutuen lana kritikatzeko berriz, honako arrazoiak aipatu zituzten: «bajarik eman ez, lesioek laneko jatorria dutela ukatzea, altak sendatu gabe dagoela ematea etab. Errealitate gordin honen aurrean» langile guztiei mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete LABetik.

Hilabeteko azken ostirala eta Mobilizazio Eguna

Politika » Amnistiaren Aldeko Mugimenduak eta Etxerategi deituta elkarretaratzeak egingo dituzte gaur.

A. IMAZ

Etxerategi antolatuta eta gaur hilabeteko azken ostirala dela eta euskal presoan aldeko elkarretaratzeak egingo dituzte ohiko orduetan bi eskualdetako hainbat herritan.

Presoen aldeko bilkurekin batera, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gaur Mobilizazio Eguna deitu du, «aste honetan epaitzen hasi diren 27 euskal herritarrei babesa eman asmoz».

«Auziaren aurka»

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Mobilizazio Eguna antolatuta du gaur, *Euskal Herriak askatasuna behar du* lelopean.

Astelehenean Auzitegi Nazio-

nalean 33/01 izendatu duten auziaren Amnistiaren Aldeko Mugimenduko 27 kideren aurkako epaiketa hasi zen. Auziperatuen artean, Etxerat, Askatasuna, Senideak, AAM batzordeak eta Behatorkiko kideak aurkitzen dira.

«Ertzaintzak izandako jarrera» salatu du Anoetako AAMk

Anoetako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «herriko bi gaztek Ertzaintzaren jazarpena pairatu» zutela salatu du ohar batean. AAMk asteartean kokatu ditu gertaerak.

«Pankarta ipintzen ari zirela»

Anoetako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azaldu duenez, «bi gazteak A-25 kalera! Askatasuna ipintzen zuten pankarta jartzen ari ziren eta Ertzaintzaren auto bat gerturatu zitzaizkien ondora, bertatik bertatik atera zirelarik. Hauek erderaz ea pankartan zer jartzen zuten eta nork sinatzen zuten galdeitu zien. Gazteek zer jartzen zuten eta inork ez zuela sinatzen erantzutean, Ertzaintzaren arazorik ez zegoela baina telefono dei bat egin

«Epaiketa salatzeko, elkartasuna azaltzeko eta Euskal Herriak askatasuna behar duelako» Mobilizazio Egunean kalera irteteko deia luzatu dute AAMtik.

Epaiketaren inguruan, «konde-natu nahi dutena, AAMren lana»

dela azaldu zuten, «hau da, errepresioaren salaketa eta preso, errepresaliatu nahiz hauen gertukoekiko elkartasuna eta laguntza».

Herrigehienetan mobilizazioak egingo dira eta Anoeta eta Asteasu-tik deialdi zehatzak luzatu dituzte.

Anoeta eta Asteasu

Asteasutik jakinarazi dutenez, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta elkarretaratzea egingo dute 20:30tik aurrera. Anoetan bestalde, 19:30ean egingo dute elkarretaratzea herri sarreran. 22:00etan epaiketaren inguruko DVD emanaldia ikusiko dute Gaztetxean eta 23:00etan Neu eta Baizen taldeen kontzertua egingo da.

Azken ostirala

Egunean zehar egingo diren ekitaldietan eta Etxerategi antolatutako elkarretaratzeetan Amnistiaren Aldeko Mugimenduko auziperatuak protagonista izango dira.

» AZKEN OSTIRALA

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketak. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegieta. 20:30ean.
- Leitza. 20:00etan.
- Lizartza. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.

Iragarki laburrak

LANA

■ Iturgina. Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.



AMMren esanetan argazkiko pankarta jartzen ari ziren 2 gazteak. HITZA

behar zutela esan zien. Pankarta jartzeaz amaitu zutenean Ertzaintzei bukatu zutelanean irteteko deia zuten, ertzaintza oraindik telefonoz ari zirela. Handik 2-3 minututara plazara sartu eta porra eskuan zutela Itzuli eta Arkupe tabernan sartu ziren ertzaintza bi herritar

haien bila. Han ez zeudela ikusirik herriko kaleetan beraien bila jarraitu zuten. Bide batez elizan jarririk pankarta kendu zuten. Hau al da EAJk dioen elkarbizitza, tolerantzia eta adierazpen askatasuna? Beste behin ere argi geratu da Ertzaintzaren jarrera zipaioa».

«Gazte borroka aldarrikatzeko» NafaRock 2008 izango da bihar

Leitza » 19:30ean plazatik abiatuko den manifestazio batekin emanen diote hasiera eta gauean kontzertuak izanen dira kiroldegian.

ERREDAKZIOA

Bihar Gazte' NafaRock-en bigarren edizioa ospatuko dute Leitza, manifestazio-ekitaldi batekin eta hainbat kontzerturekin. Oier Eizmendi Gazte Independentistak taldeko bozeramaileak azaldu duenez, 1.800-2.000 pertsona inguru espero dituzte larunbatean egingen diren ekitaldietan.

19:30ean emanen diote hasiera aurtengo edizioari, plazatik aterako den manifestazio batekin. Ondoren ekitaldia egingen dute kiroldegian eta gauean kontzertuak izanen dira bertan, eta amaitzeko, gaupasa.

Manifestazioa eta ekitaldia

Manifestazioa 19:30ean aterako da plazatik, *Gazte indarrak, independentzia* lelopean. Manifestazioak herria zeharkatuko du eta gero kiroldegira iristen denean bertan ekitaldi bat egingen da. «Bertan gazte mugimenduko erronka ezberdinak islatuko dira», dio Eizmendik, «eta gazteriaren bilakaera Euskal Herriko prozesuan zein izan den azalduko dugu».

Honetaz gain ikuskizun batzuk ere antolatuko dituzte: abeslariak dantzariak... «Barañaingo neskatxa batek kantautore bezala joko du, gero Falceseko jotariak jota batzuk abestuko dituzte eta aizkolariak ere izanen dira, baita dantzariak ere».

Kontzertua

Kontzertua ekitaldia amaitu ondoren hasiko da, 22:30 aldera: Kautiko, Sorkun, Altsasuko Batukada, Etsaiak eta Talco (azken hauek Ska-punk jotzen duten Italiako tal-

de bat dira), hauek izanen dira aurtengo NafaRock-en joko duten taldeak. Sarrerak ohiko lekuetan salgai daude eta aldeztatik erosiz gero 13 euro balio dituzte, eta bertan, 15 euro.

Kontzertuak amaitu ondoren gaupasa antolatuko dute eta horretarako Dj bat jarriko dute kiroldegian, bai baruan bai kanpoan txosnak jarriko dituzte. «Baruan barra jarriko dugu eta kanpoan, txosna».

NafaRock-en sorrera

Oier Eizmendi leitzarrak NafaRock nola sortu zen azaldu du. «Is-torioa da eman nahi geniela herrialde ikuspuntu bat Nafarroan burutzen diren borroka ezberdinei. Hauek ekitaldi, manifestazio eta kontzertu baten bidez islatu nahi genituen. NafaRock hasieratik horretarako biltzeko eremu bat izatea nahi genuen, horrela mezua ere jendeari helarazteko errazagoa delako». Zentzua hori dela gehitu du Eizmendik. «Bilgune bat izatea Gazte NafaRock-en baitan, eta Nafarroako gazterioa biltzea bertan».

Mezua

NafaRock-ek oro har oinarritzko ideiak ditu, Eizmendik adierazi duen bezala. «Ekitaldi honetan islatzen da nazio eraikuntzan ematen diren aurrerapausuak, okupazioaren arloan, feminismoari dagokionez, AHTn eta etxebizitza eskubidean, hau da, gazte mugimenduaren borrokaren eremu ezberdinetan».

Oinarritzko borroka eremuak horiek izanik, aurten 3 eremu azpimarratu nahi izan dituzte. «Aur-



Oier Eizmendi leitzarra erdian, Gazte Independentistak taldeko Iruñeko eta Barañaingo beste 2 kideekin. N. GARZIA

tengizarte eraldaketan zentratuko gara. Hortik abiatuta gaur egun daukagun gizartearen iraultza egitea da helburua. Horretarako, lehenik AHTren inguruko borroka ezberdinak piztea da gure asmoa. Bestalde etxebizitzaren arazoa ere azpimarratu nahi dugu prezioak direra eta independizatzeko eskubide hori bermatua ez dugulako, eta azkenik hezkuntza ereduaren baitan Bolognari ezetz bat esan nahi diogu».

«Mezu politiko» horiek helarazteko, Gazte Independentistak taldeko beste kideek azaldu dutenez, Oier Eizmendik hitz egingen du talde osoaren izenean, hau ordezkatuz.

Lehenengo urtean 1.500 pertsona inguru bildu ziren Arbizun eta aurten kopuru hori gainditzea espero dute antolatzaileek. «1.800-2.000 pertsona espero ditugu».

Urtetik urtera egiteko asmoa

Gazte NafaRock-ek 2 urte beteko ditu bihar Leitza eta antolatzaileek urtetik urtera egiteko asmoa azaldu dute Nafarroako leku ezberdinetan, gazteentzako urtero errepikatuko den bilgune finko batean bihurtu dadin, betiere, filosofia eta borroka eremu horiek musikarekin uztartuz.



Kautiko taldeak joko du, beste zenbait talderekin batera. HITZA



Kiroldegian egingen dute ekitaldiak eta kontzertuak ere bertan izanen dira. N.G.

» GAZTE' NAFAROCK 2008, LEITZA

Jende kopurua

- **2007, Arbizun.** 1.500 pertsona inguru bildu ziren lehenengo urtean.
- **2008, Leitza.** 1.800-2.000 pertsona espero dituzte.

Ekitaldiak

- **19:30.** Manifestazioa egingen dute herriko plazatik abiatuta 'Gazte indarrak, independentzia' lelopean. Herria zeharkatu ondoren kiroldegira iritsiko dira.
- **Ondoren.** Manifestazioa amai-

tzen denean ekitaldia egingen dute kiroldegian. Bertan Gazte Independentistak taldeko bozeramaile den Oier Eizmendik hitz egingen du. Honetaz gain, dantzariak, aizkolariak... izanen dira.

■ **Kontzertuak.** Ekitaldia amaitu eta gero kontzertuak hasiko dira, eta orotara 5 taldek joko dute: Kautiko, Sorkun, Altsasuko Batukada, Etsaiak eta Talco taldeek beraien musika joko dute.

■ **Gaupasa.** Kontzertuak amaitu eta gero gaupasa egingen dute eta

horretarako dj bat jarriko dute kiroldegian bertan. Gainera, kiroldegi kanpoan txosna bat jarriko dute eta baruan, barra.

Aurtengo mezuek

- **AHT.** AHTaren inguruko borroka ezberdinak piztea.
- **Etxebizitza.** Etxebizitzaren arazoa azpimarratu nahi dute eta independizatzeko eskubidea aldarrikatu
- **Hezkuntza.** Bolognari ezetz esan nahi diote.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ikaztegieta.** Herri Urratsera maiatzaren 11n joateko Udalak autobus antolatuta du. Izena Udal bulegoetan eman behar da. 6 euro.
- **Ibarra.** Haur eskolaren inguruan udalak hartu duen erabakia salatzeko, 17:00etan elkarretaraztea plazan.
- **Tolosa.** Internet Eskola Trianguloan eta Kultur Etxean, ostiralean 09:30etik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara, larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 14:00etara.
- **Tolosa.** Apirila Gorria: *Kuba* Kubako Alderdi Komunistako kide batek emanda, 19:30ean Otsabi gazte lokalean.
- **Tolosa.** Gipuzkoa Encounter II. Informatika zaleen arteko bilkura Usabal kiroldegian.

Ikuskizunak

- **Amezketeta.** Zumadi eskolan, 17:00etan hasita Anjel Magoren emanaldia izango da. Ekitaldi hau irekia da, herritar guztientzat.
- **Villabona.** Ion Munduatek *Astra Tour* dantza ikuskizuna aurkeztuko du Gurean, IV. Dantza Garaikide Zirkuituan, 22:30ean.

Zinema

- **Tolosa.** Alfred Hitchcock-en *Los pajaras* filma emango dute zineforumean, 22:30ean.
- **Zizurkil.** Topaguneak antolatutako Euskarazko Film Laburren Zirkuitoa 20:30ean antolatuta dute emanaldia Atxulondo kultur etxean.



Eskuak trebatzen ikasten, Bedaion

BEDAIO Bedaioko Artubi elkartearen eskulan ikastaroa antolatuta dute. Bertara 13 bat lagun joaten dira, adin desberdinetakoak denak. Leire Markinea da irakaslea eta astean behin, ostiraletan joaten da Artubi elkartera. Han aritzen dira, trasteak eta etxean aurkitutakoak apaintzen, edozein txoko gero dotoretzeko. Tolosako

Udalak irakaslea ordaintzen du eta materiala norberak eramaten du etxetik. Ekainera arte iraungo du ikastaroak, eta bertaraten direnak ikasten eta elkartzen. Bestalde, martxan jarri nahi duten informatikako ikastaroari buruzko informazio bilera gaur egingo dute, 17:30ean Artubi elkarteran. ARTUBIELKARTEA

Ikastaroak


- **Alkiza.** Ukenduak egiten ikasteko ikastaroa (intsusa, kalendula, berbena, eta abar) antolatuta dute maiatzeko astelehenean, astelehenean Pili Otaegirekin 15 eurotan. Izen-ematea, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean egin daiteke (943 693930 telefonoan).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarrera, 1. 943 673649.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak Maren!

Gaur zure lehen urtebetetzea. Muxu bat. Aldaba.

txokoa **h**

partidarako 4 sarrera pare

Irabazleak:

- Axun Mujika (Villabona)
- Nekane Jauregi (Tolosa)
- Karmele Arsuaga (Orendain)
- Axun Alkorta (Tolosa)

■ sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan izango dituzue ■



BRUESA GBC
Palma Aqua Magica

OSTIRALA

APIRILAK **25-20:30**

ILLUNBE

1. ÑAÑARRI
RALLY ESPRINTA
ALEGIA - ORENDAIN - ABALZISKEIA - AMEZKETA

2 sarrera pare

zozketan

Irabazleak:

- Koro Balerdi (Amezketeta)
- Lurdes Karrera (Ibarra)

Larunbata ◦ apirilak 26

eraikitzen
kolaboratzen

Irurako
Ikastola

